otoño 2013 udazkena

# Elkarrekin

Caritas Gipuzkoa

6

☎ 943 44 07 44 • idazkari@caritasgi.org • www.caritasgi.org

## GALTZA BETE LAN!

*Ahal den bezala ibiltzeak, nahiko lan ematen du, nahi den bezala ibili gabe ere,* dio esaera zaharrak. Lana. Hainbat burukominen erroa. Gipuzkoan, biztanleria aktiboaren ia %12a, langabezian dago. Zenbat pertsona, zenbat familia, egoera gogorrak bizitzen. Bizirauten. Pertsona horien guztien atzean, berriz, historia eta bizipen ugari daude. Nork ez du ahaide edo lagunen bat, krisiarengatik lana galdu edota galtzeko zorian ez denik. Krisiak gogor astindu ditu beren bizitzak, eta kezka eta sufrimendu franko ekarri dizkie. Pertsona ahul eta zaurgarrienek ere antzeman dute astindua. Ez dute gizarte-laguntzen mende bizi nahi. Beren betiko bizimodura itzuli nahi dute.

Enplegua ezinbestekoa da, bizimodu duin eta autonomo bat izateko. Lanak, edonon, etxean, lanean, gizartean... geure buruaren jabe bihurtzen gaitu.

"Karitatea egiaren baitan" entziklikan, Benedikto XVI.a aita santuak, era honetan gogorarazi zigun lanaren garrantzia: "Luzaroan lanik gabe egoteak, edota laguntza publikoaren edo pribatuaren menpe egoteak, pertsonaren askatasuna eta sormena eta haren familia eta gizarte-harremanak murrizten ditu, eta kalte larriak eragiten, arlo psikologiko eta espiritualean". Zerbait egin behar dugu.

Gaztea lanera, zaharra atsedenera. Erraz esaten da! Aldez aurretik badago lanik. Adibidez, begirada aldatu behar dugu. Gizon-emakumeei enplegu-orientazioa eta harrera eta informazio-zerbitzuak emateko lanean dihardugu Caritasen. Enplegu duinen aldeko apustua aldarrikatzen dugu. Baita gizarte-ekonomia baten alde ere. Garai berriek konponbide berriak eskatzen baitituzte.

Administrazioari esan nahi diogu, alde batetik, babes dezala lanbide-prestakuntza, eta bestetik, auto-enplegua ere bultzatu dezala, Caritasera jotzen ari diren gizon eta emakumeek, aspaldian, oso garai latzak bizi baitituzte.

**«Enplegua ezinbestekoa da, bizimodu duin eta autonomo bat izateko. Lanak, edonon, etxean, lanean, gizartean... gure buruaren jabe bihurtzen gaitu»**




Caritas Gipuzkoak, denok, begirada aldatu behar dugula defendatzen du. Langabetuei oso bestela begiratu behar diegu. Izan ere, pertsona horiek lan egin nahi dute. Ez dute beste nahirik. Beren bizitzaren jabe izan nahi baitute. Beraz, pertsona horien gaitasunak agerian jarri behar dira, eta adore eman, eta itxaropena transmititu behar diegu. Gauzak aldatzea posible da. Ziur. Pertsona horiei laguntzea posible da. Ekin lanari!

### elkarrizketa



**ONINTZA LASA ,**
**Gizaide:**

«Gizarteak, denok, pertsonak garela sinestea nahiko nuke»

### boluntarioaren ahotsa

"Gracias a ellos soy mucho más comprensiva y respetuosa conmigo y con los demás (familia, amigos, conocidos, desconocidos...). Gracias a ellos tengo muchos menos perjuicios. Gracias a ellos estoy aprendiendo a aceptarme a mí y a los demás, con lo bueno y con lo malo, y a aceptar todo lo que viene, como lo hacen ellos. Gracias a ellos aprecio y valoro más todo; con una escala de valores mucho más humana y verdadera. Al principio me sentía incongruente hasta que vi que ellos me aceptan con toda mi incongruencia. No hay día que no aprenda algo. Forman parte de mi vida, están presentes cuando hace frío, viento, lluvia... Me siento una privilegiada por poder estar con ellos, por conocerles, porque son una maravilla de personas y por conocer al voluntariado y trabajadores de Caritas".

# editorial

Recientemente leía unas palabras de Ignacio de Antioquia que, me hacen meditar y situarme mejor en esta hora de Caritas y mi nuevo servicio de Consiliario de Gipuzkoa. Lo recojo de un estudio sobre la plenitud del hombre cuando dice: «la fe es el principio y el amor es el fin; ambos bien unidos son Dios en nosotros».

¿Qué queremos decir con esto? Aquello que hace mucho nos dijo el evangelista: "sabiendo esto, seréis dichosos si lo ponéis en práctica" (Jn 13, 17). O sea que, hay una continuidad entre el conocimiento (saber esto), la afectividad (ser dichosos) y la acción (poner en práctica). La Iglesia es una comunidad de fe, esperanza y amor. Son los valores fundamentales, las virtudes teologales, o sea, aquello que nos hacer vivir como hijos/as de Dios. Se trata, por tanto, de unir todo esto en una vivencia personal y grupal que nos constituya como hermanos/as. La clave está en una vida espiritual fuerte y bien centrada.

El cristianismo, tal como se configura en los evangelios, en los escritos de san Pablo y en los de san Pedro y san Juan apuesta decididamente por la renovación o transfiguración de las personas humanas, por la vida nueva de Cristo donador del Espíritu. No se trata de un espiritualismo, sin anclaje real en la historia. Supone, más bien, la acción responsable de los hombres y de las mujeres libres y en amistad y colaboración con Dios, cuyo fin no sólo es llevar la fe a todo el mundo, sino crear nuevas relaciones de justicia, amor y paz que permitan caminar hacia la tierra nueva y el cielo nuevo del Reino de Dios. Así lo afirma el concilio Vaticano II cuando avisa de la necesidad de no debilitar sino fortalecer el trabajo en el mundo actual (Gaudium et spes, 39, 2). O cuando recuerda que "el mensaje cristiano no aleja de la construcción del mundo" (Gaudium et spes, 34, 3). Dicho de otra forma, en la medida en que Dios nos ilumine con su mirada, en la medida en que el Espíritu de Dios habite en nuestro corazón (ser espiritual), nos veremos impelidos al respeto, amor y perdón hacia el prójimo y a la construcción de un mundo más amable.

*Xabier Andonegui Mendizabal,*
*consiliario*



## CAMINAR, COLABORAR, FORMAR

**Inclusión Bergara se puso en marcha hace, aproximadamente, 8 años y desde entonces no ha parado de andar. El 'Centro Formativo Ocupacional', por ejemplo, es un espacio de encuentro del colectivo inmigrante al que se le proporciona acogido y servicio. Y, sobre todo, no sentirse sólo. Compañía. Cercanía.**

La 'intermediación laboral' es otro de los aspectos en la que trabaja Inclusión Bergara. El trabajo, además de ser un derecho reconocido, brinda autonomía, procura a familiares lejanos una ayuda necesaria, favorece la armonía familiar y social, aporta a nuestra sociedad, evita conductas antisociales...

Para Inclusión Bergara, atender la necesidad de formación y capacitación profesional y humana, es una herramienta social vital. Para muchas personas la educación constituye el cauce natural de la integración social y ayuda a romper la dependencia mediante procesos educativos: la persona adquiere conocimientos, aprende habilidades...

Dentro del ámbito de la formación se han organizado dos cursos de cocina en colaboración con la Sociedad Zuloa de Bergara. Inclusión Bergara ha impartido también una serie de cursos de Auxiliar de Geriatría (título del Centro Humanización de la Salud de Madrid) de 150 horas formativas cada una. Se han llevado a cabo nueve cursos del nivel básico y ocho de especialización, formando a 170 alumnos en el primer nivel y 103 en el curso de especialización. En la actualidad son 22 los alumnos que está participando en el curso de nivel básico.

En colaboración con el departamento de turismo del ayuntamiento de Bergara, y dentro del acompañamiento y aprendizaje, Inclusión Bergara ha desarrollado varias actividades sociales: visita a un caserío de Aretxabaleta para conocer las labores que se desarrollan en el ámbito rural, visitas al pueblo de Bergara y a la cueva de Arrikutz de Oñati... Todo ello con objeto de conocer la comarca en la que residen, comparten y se socializan.

**ONINTZA LASA, GIZAIDE:**

# «Gizarteak, denok, pertsonak garela sinestea nahiko nuke»

**Iragan urriaren 10ean, Gaixotasun Mentalen Nazioarteko Eguna ospatu zen. Caritas Gipuzkoako Gizaide fundazioak gaixo mentala du une oro buruan. «Inor bakarrik sentitu ez dadin, laguntza behar duen edonork, Gizaideko ateak zabal-zabalik ditu", adierazi du Onintza Lasak, Gizaide Fundazioko zuzendariak.**

**Burua galtzea azkena omen da baina zer da osasun mentala?**
Askotan osasuna, egoera fisiko batekin jarri izan da harremanetan. Azkenaldian, ongizate fisiko eta psikikoarekin. Osasun mentala, mundu erreala eta norberaren barruko pentsamenduen oreka da.

**Bakardadeak eta osasun mentalak ba al dute harremanik?**
Osasun mentalak, oraindik ere, estigma soziala du. Gaixoa 'arrarotzat' definitzen du gizarteak. Beraz, gaixotasun mentalak berezko dituen ezaugarriengatik, eta gizarteak gaixo mentala tratatzen duen eragatik, bakardadera iristea oso erraza da. Geroz eta gehiago dira buruko arazoren batengatik artatutako pertsonak. Ikerketen arabera, lau pertsonetatik batek, bere bizitzan zehar buruko arazoren bat izango ei du. Horrek ez du esan nahi gaixoa denik, tokian tokiko arazo bat izan baitaiteke. Zerk eragiten du gaixotasun mentala? Faktore askok: genetikak, testuinguru kultural eta familiarrak, kontsumoek...

**Gaixotasun mentalarekin bizi daiteke.**
Eta ondo gainera! Arau batzuk ikasi, ohitura batzuk izan, normaltasunez botikak hartu –kolesterola edo diabetesa duen pertsona batek bezala–, eta ingurune sozial eta familiar egoki batean, bizitza duina izan lezake gaixotasun mentala duen pertsonak. Oraindik ere kentzen joan beharko genukeen topiko asko ditugu gainean.

**Beraz, gaixotasunaren inguruan, ezjakintasuna da nagusi.**
Baita beldurra ere! Gaixotasun mentala duen pertsona erotzat jo izan du gizarteak. Horrez gain, ez ditugu gaixo mentalak inguruan nahi. Eta beldurra azaltzen denean gaixoari bizkarra eman ohi diogu.
1997tik, Gizaide, bere ekarpena egiten ari da gaixo mentalaren alde. Zerbitzuak egokitzeaz gain, instituzioekin elkar lanean ari gara. Pertsona bakoitzak bere bidea egiteko, denbora behar du. Gizaiden, eguneko zentro bat dugu emakume eta gizonei zuzendua. Aste-egunetan, ordutegi zabal batean, terapia ezberdinak eskaintzeaz gain, aktibitateak egiten dituzte: tailerrak, irteerak... Bazkaldu ere egoitzan egiten dute. Egitura eta ohiturak indartzeko, autonomia bultzatzeko, etxeko-lan batzuk egiten erakusten diegu. Lan-deribazio batetara ere bideratzen ahalegintzen gara: adibidez, Aukerarekin (enplegagarritasuna lantzen duen zentro okupazionala) harreman bikaina dugu.

**Bestatik, dugun 'harrera pisua', gizarteratze egoitza da. Askok famili babes ahula dutenez laguntza eta egitura ematen ahalegintzen gara: eguna egituratu izan dezaten.**
Donostiako alde zaharrean ere pisu bat dugu, eta prozesua amaitu dutenei zuzendua dago. Hitz batean, pertsona bakoitzak bere bidea egin dezan, autonomia lantzen dugu.




> «Eredu aldaketa funtsezkoa da. Gaixotasuna duen pertsonari pilulak emateaz gain gauza asko egin behar dira bizitza normala lortzeko»

**Autonomia sustatzea eta bizitza kalitatea hobetzea dira Gizaideren helburuetariko batzuk. Eta norentzat ez!**
Hori da. Ez ditugu ahaztu behar garai bateko ereduak: ero-etxeak... Askotan, gaixoa ezkutatu egin nahi izaten zen. Egun eredua aldatzen ari da. Jarrera komunitario baterantz goaz. Hau da, baliabideekin, pertsonak bizitza ahalik eta normalena egitea. Badugu lanik. Ez soilik arlo klinikoan, baita sozialean ere: gaixoa etxean ez geratzea, isolamendua, azpiegitura eza... Eta nola? Egiturak sortuz. Hor lan eginez gaixo mentalak ikusiko du gai dela gauzak egiteko: autonomia... Eta, hala, denok egingo dugu aurrera. Eredu aldaketa funtsezkoa da. Gaixotasuna duen pertsonari pilulak emateaz gain gauza asko egin behar dira bizitza normala lortzeko.

**Gaixotasun mentalean, gaixoak ez ezik, bere inguruak (familiak...) ere sufritzen du.**
Bai. Eta asko. Gaixotasun gogor eta nekagarria da; atentzio handia eskatzen du. Ulertu eta berarekin bizitzen jakin behar da. Horregatik, gaixoaren familiarekin ere lan egiten dugu. Denen laguntzarekin, gaixotasuna eramangarriagoa da.

**Boluntarioak Gizaiden garrantzitsuak dira.**
Dudarik gabe. Bakardadea zama da, eta gure erabiltzaileei zinera joatea, kafe bat hartzea... gustatzen zaie. Nori ez. Horretarako, boluntarioak, ezinbestekoak dira. Opari handia dira beraientzat. Ohikotasunetik irtetea on egiten die. Guztiok aberasten gara: erabiltzailea, gu, boluntarioa...

**Nola gustatuko litzaizuke, etorkizunean, gizarteak, gaixotasun mentala duen pertsona ikustea?**
Gizarteak, denok, pertsonak garela sinestea nahiko nuke. Eta noski, edonork dituen aukera berdin-berdinekin, gaixotasun mental bat dutenek bizitza normalizatua izatea amesten dut: lan duina...




**PLAN ESTRATÉGICO.** Después de un año de la puesta en marcha del Plan Estratégico (2012-2016), Caritas Diocesana de San Sebastián, celebró un plenario para evaluar las acciones prioritarias que nos marcamos para el curso pasado (2012-2013). Nos alegra constatar que la mayoría de las programadas están ejecutadas y que otras, aunque no finalizadas, se están desarrollando.
Además, acciones no priorizadas para el curso 2012-2013 como, por ejemplo, la puesta en marcha de un boletín, la reorganización de recursos y un nuevo sistema informático para mejorar el trabajo conjunto, ya se han realizado. Otro de los objetivos del encuentro fue establecer las nuevas acciones a desarrollar a lo largo del presente curso y así será sucesivamente durante el periodo de ejecución del Plan Estratégico hasta 2016.

## KITZIN

Gaur egun, inoiz baino gehiago, Gipuzkoako Caritasetik aurrerapausoak eman nahi ditugu gizakia ardatz izango duen ekonomia solidario baten alde. Horrexegatik bultzatzen dugu Bidezko Merkataritza: pertsona irizpide ekonomiko hutsen gainetik jartzen duelako, gizon-emakumeen berdintasuna defendatu eta lan-baldintza eta soldata duinak bermatzen dituelako, haurren esplotaziorik onartzen ez duelako, ekoizpen-prozesuetan ingurumena zaintzen duelako...

Horrexegatik dugu zabalik herritar guztientzat KITZIN DENDA. Bertan hegoaldeko herrialdeetako pertsonek ekoitzitako kalitate handiko janari-edariak, eskulanak, kosmetika... eta beste hainbat gauza aurkituko dituzu, den-denak justiziaz eta duintasunez eginak.

KITZIN DENDA, zure aukera solidarioa!

Narrika 29, Donostia
Tel.: 943 426 946
www.kitzin.org

**EXPOSICIÓN FOTOGRÁFICA**
**"Alejandro Labaka: puente entre culturas"**
**Catedral del Buen Pastor de Donostia - San Sebastián**
**22 Noviembre – 9 Diciembre**
**(Horario: 8:30 – 12:30 y 17:00 – 20:00)**




Organizado por la Diócesis de San Sebastián, Sercade (servicio capuchino para el desarrollo) y Caritas Gipuzkoa, la muestra es un recorrido biográfico por medio de textos, ilustraciones de Antonio Oteiza y fotografías; es un viaje por su diario "Crónica Huaorani", por los objetos que le acompañaron.

Alejandro Labaka Ugarte (Beizama, 1920) quiso desde muy joven ser misionero capuchino. Tras ser ordenado sacerdote, con solo 27 años, lo destinaron a la misión de Pingliang en China. En 1953 fue expulsado y redestinado por sus superiores a Ecuador, donde pasó los primeros diez años en la sierra y en la costa.

En 1965 llegó a la Misión de Aguarico (selva amazónica) y comenzó su gran labor con los pueblos más olvidados. La población de Huaorani marcaría sus últimos años y el importante legado que dejaría tras su muerte.

El 21 de Julio de 1987 los cuerpos de la Hermana Inés Arango y del obispo Alejandro Labaka y fueron encontrados lanceados en la selva. Su historia es la de la misión de frontera, la del de remoto lugar, la del petróleo, la de pueblos indígenas que permanecen ocultos. Una historia que exige trascender lo propio para adentrarse en lo desconocido para ser "Puente entre Culturas".

**CHARLA/CONFERENCIA:**
**"Vida y Obra de Alejandro Labaka", por Miguel Ángel Cabodevilla**
**29 de Noviembre**
**Hora: 19:30**
**Lugar: Iglesia de la Virgen de Lourdes de Capuchinos (Calle Okendo)**

Caritas
Gipuzkoa

## ELKARTASUNA FILIPINEKIN - SOLIDARIDAD CON FILIPINAS

# Gure laguntza behar dute
# Necesitan nuestro apoyo

**Caritas Gipuzkoa**
Pº Salamanca, 2
Tlf: 943 440 744
Fax: 943 424 816
**cooperacion@caritasgi.org**
**www.caritasgi.org**
**www.caritas.es**

**ZURE LAGUNTZA BIDERATZEKO / COLABORA INGRESANDO TU AYUDA:**

| | |
|---|---|
| **Caja Laboral** | **3035 0060 41 0600100001** |
| **KUTXA** | **2095 5381 17 1062435374** |
| **BBVA** | **0182 5709 41 0010011112** |
| **La Caixa** | **2100 5608 34 0200106577** |